



IRAKURKETAN ETA IDAZKETAN SARTZEKO EGOKITZAPENA ADAPTACIÓN DE ACCESO A LA LECTURA Y LA ESCRITURA

01

DEFINIZIOA Zer da?

Irakurketan eta/edo idazketan sartzeko egokitzapena irakurmenean eta idazmenean hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituen ikaslearen gaitasunak gehitzera bideratutako gailu, tresna, erreminta edo softwarea da. Egokitzapen horren helburua da ikasleak ahalik eta autonomiarik handienaz egin ahal izatea bere adinari eta erreferentzia-taldeari dagozkien eskolako lanak. Besteak beste, honako hauetarako egokitzapenak daude:

Pertsona / ordenagailua elkarrekintzarako laguntza: teklatura (egokitua, birtuala), sagua (joystick-a, trackball-a, sakagailua, aurpegi-sagua, sagu birtuala, ekorketa- edo eskaneatze-programak), ukimen-pantaila, Windowseko erabilerraztasun-aukerak, etab.

Irakurketarako laguntza: audiofonoak, ahotsaren sintesia, pantaila-irakurgailua, etab.

Irakurketarako laguntza: leiarrak, informazioa ahotsaren bitartez sartzea, programa handitzaileak, etab.

Komunikaziorako sistema handitzaileak (KSH) erabiltzeko laguntza: Braille (Braille idazmakina, Everest inprimagailua, sonoBraille-a, Braille lerroa, Braille hitz egina, etab.), zeinu-mintzaira eta daktilografia (zeinuak esateko bideoen galeria; QR kodea, zeinuak esateko bideoetarako lotura barne), Komunikazio Sistema Piktografikoa —KSP— (ikur eta ikonoen galeriak; komunikagailu eramangarriak; ikurrak kudeatzeko eta komunikazio-plafoiak egiteko programak; KSP bidezko idazketa-programa; QR kodea, KSPko mezueterako lotura barne), Bliss-a, etab.

DEFINICIÓN
¿Qué es?

Una adaptación de acceso a la lectura y/o la escritura es un dispositivo, instrumento, herramienta, o software que tiene como objetivo incrementar las capacidades del alumno con necesidades educativas especiales (NEE) en lectoescritura, para conseguir que pueda ejecutar con la máxima autonomía las tareas escolares propias de su edad y grupo de referencia. Entre ellos encontramos adaptaciones para:

Apoyo a la interacción persona / ordenador: teclado (adaptado, virtual), ratón (joystick, trackball, pulsador, ratón facial, ratón virtual, programas de barrido o escaneo), pantalla táctil, opciones de accesibilidad de Windows...

Apoyo a la lectura: audífonos, síntesis de voz, lectores de pantalla...

Apoyo a la escritura: lentes, ingreso de información a través de voz, programas magnificadores...

Apoyo en el uso de los sistemas aumentativos de comunicación (SAC): Braille (máquina de escribir Braille, Everest, sonoBraille, línea braille, braille hablado,...), lenguaje de signos y dactilografía (galería de vídeos de dicción de signos, código QR con enlace a vídeos de dicción de signos) Sistema Pictográfico de Comunicación SPC (galerías de símbolos e iconos, comunicadores portátiles, programas de gestión de símbolos y de elaboración de plafones de comunicación, programas de escritura con SCP, código QR con enlace a mensajes en SPC), Bliss...

BALIABIDEAREN
ERABILERA
Nola erabiltzen da?

Irakurketan eta idazketan sartzeko egokitzapena ikasle jakin bati lotuta dago, baina ikasle horren presentziak ikasgelako ikasle guztiengan eragina duten aldaketa metodologikoak eragiten ditu eskuarki. Egokitzapena ezartzeko prozesuak 3 urrats ditu:

Lehenengo urratsa hau da: irakasleak egokiro jakitea zer laguntza jasotzen duen ikasleak, laguntzaren justifikazioa, ezaugarriak, erabiltzeko aukera, maiztasuna eta metodologian dituen eraginak.

Bigarren urratsa egokitzapena ikasgelan gauzatzea da; horrek egoera berri eta sortzaile ugari agertzea eta bideratzea dakar.

Hirugarren urratsa aurreko faseari buruzko gogoeta da. Irakasleak zuzen-zuzenean ikusten du planteatutako egokitzapenaren eraginkortasuna eta informazio horrek egokitzapena ezartzeko prozesu guztia berrelikatu behar du, ikerketa – ekintza prozesuaren baitan.

**UTILIZACIÓN
RECURSO**
¿Cómo se usa?

Funtsean, egokitzapena erabiltzeak ikasleak eskola-dinamikan duen autonomia hobetzen ote duen balioetsiko da, baita egokitzapenaren eragin-maila ere.
Aniztasunarekiko arreta normalizazio-printzipioaren baitan dago.

La adaptación de acceso a la lectura y la escritura está vinculada a un alumno concreto, pero su presencia a menudo implica cambios metodológicos que inciden en todos los alumnos de la clase.

El proceso de implementación de una adaptación supone 3 pasos:

El primer paso consiste en el conocimiento adecuado por parte del docente del tipo de apoyo que recibe el alumno, su justificación, sus características, sus posibilidades de uso, su frecuencia y sus implicaciones metodológicas.

El segundo paso consiste en la puesta en práctica de la adaptación en el aula, que supone la aparición y resolución de un gran número de situaciones nuevas y creativas.

El tercer paso consiste en la reflexión sobre la fase anterior. El docente es quien conoce de primera mano la efectividad de la adaptación planteada y dicha información debe retroalimentar todo el proceso de implementación de la adaptación, en un proceso de investigación- acción.

Se valorará, básicamente, si el uso de la adaptación mejora la autonomía del alumno en la dinámica escolar o no, así como el grado de incidencia.

La atención a la diversidad responde al principio de normalización.

**IKASGELARAKO
GOMENDIOAK**

Ikasleak erabilera pertsonalerako ordenagailua edukitzeak pertsonaren eta ordenagailuaren arteko elkarrekintzarako lagungarriak diren egokitzapenak ezartzeko prozesua erraztu egiten du hein handi batean. Erabiltzaile-profilaren konfigurazioan, erabilerraztasun-aukeren arabera ezin hobe den konbinazioa ezarriko da, eta ez da beharrezkoa izango saio bakoitzean aldaketak exekutatzeko. Eskuarki, era horretako aukerei buruzko eztabaidak gainerako ikasleentzako konfigurazio pertsonala optimizatzea ere ahalbidetzen du.

Irakurketan eta idazketan sartzeko egokitzapen berria txertatzeak baliabide didaktikoak areagotzea ere

badakar. Adibidez, Windowseko ahots-sintesia erabiltzeak ahoskera neutroa izatea ahalbidetzen du eta jarduera jakin batzuetan oso erabilgarria izan daiteke (intonazio egokiaren garrantziari buruzko gogoeta kritikoa...).

KSHei dagokienez, gogorarazi behar da ez duela zentzurik pertsona bakarrarekin erabiltzea. Izan ere, HPBak dituen ikasleengan ez ezik, ikasle hori barne hartzen duen komunitatean ere sortzen dituzten komunikazio-aukeretan datza beren ahalmen guztia.

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

El hecho de disponer el alumno de un ordenador para su uso personal simplifica en gran medida la implementación de las adaptaciones de apoyo a la interacción persona / ordenador. En la configuración del perfil de usuario se dispondrá la combinación óptima dentro de las posibilidades de accesibilidad y no será necesario ejecutar modificaciones en cada sesión. A menudo el debate sobre este tipo de opciones posibilita también la optimización de la configuración personal para el resto de alumnos.

La incorporación de una adaptación nueva de acceso a la lectura y la escritura supone también la ampliación de los recursos didácticos. A modo de ejemplo, el uso de la síntesis de voz de Windows permite disponer de una dicción neutra que en determinadas actividades puede ser de gran utilidad (reflexión crítica sobre la importancia de la entonación adecuada...).

Sobre los SAC se debe recordar que su uso no tiene ningún sentido a nivel personalizado, sino que toda su potencialidad se refiere a las posibilidades comunicativas que genera, no sólo en el alumno con NEE sino en la comunidad en que se encuentra incluido.

Gomendatutako guneak Non aurki dezaket?

Komunikazio handitzaileari eta alternatiboari buruzko Aragoiko ataria

<http://www.catedu.es/arasaac/>

Aragoiko Gobernuak garatutako ataria. Creative Commons lizentzia duen piktograma-bilduma zabal bat du, baita lineako tresna interesgarriak ere, hala nola esaldien sortzailea.

Laguntza-produktuen katalogoa

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

<http://www.catalogo-ceapat.org/>

Espainian egiten edo banatzen diren laguntza-teknologietako (edo laguntza teknikoetako) produktuei buruzko informazioa biltzen duen lineako zerbitzua. Horrez gain, produktu horiek merkaturatzen dituzten erakundeekin harremanetan jartzeko datuak biltzen ditu.

Centro de Investigación, Desarrollo y Aplicación Tiflotécnica (CIDAT)

<http://cidat.once.es/>

Espainiako Itsuen Erakundeak sortua. Besteak beste, web-orrietako edukien erabilerraztasunerako jarraibideak biltzen dituen dokumentua du, baita laguntza teknikoen katalogo osatu bat ere.

Aniztasunerako eta hezkuntza-premia berezietarako programen katalogo-taula (katalanez)

<http://www.xtec.cat/dnee/tcp/>

AHPBetarako baliabideen bilduma. Baliabideak sailkatuta (aurkibide alfabetikoa, gaikako aurkibidea), balioetsita eta artxibo exekutagarrien bitartez erabiltzaileak erabiltzeko prest jarrita daude.

Portal aragonés de la comunicación aumentativa y alternativa

<http://www.catedu.es/arasaac/>

Portal desarrollado por el Gobierno de Aragón. Contiene una importante colección de pictogramas con licencia Creative Commons, así como una serie de interesante herramientas en línea; entre ellas, el creador de frases.

Catálogo de productos de apoyo

<http://www.catalogo-ceapat.org/>

Servicio en línea que recopila información sobre productos de las tecnologías de apoyo (o ayudas técnicas) que se fabrican o distribuyen en España, así como los datos de contacto de las entidades que los comercializan.

Centro de Investigación, Desarrollo y Aplicación Tiflotécnica (CIDAT)

<http://cidat.once.es/>

Creado por la Organización Nacional de Ciegos Españoles. Entre otros aportes encontramos el documento que ofrece las pautas de accesibilidad para los contenidos en páginas web, así como un completo catálogo de ayudas técnicas.

Tabla catálogo de programas para la diversidad y las necesidades educativas especiales (en catalán)

<http://www.xtec.cat/dnee/tcp/>

Compendio de recursos DNEE clasificados (índice alfabético, índice temático) valorados y puestos a disposición del usuario mediante archivos ejecutables.